

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2023ko UZTAILAREN 14an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO EZ-OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2023ko uztailaren 14an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 13:00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain
Ander Iturri Torrea
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Jose Agustin Arrieta Eguiguren

Bere ezin etorria adierazten du: Maria Isabel Vaquero Montero


Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Vicente Garcia Momblona jaunak bere zinegotzi kargua hartzeko aitortpena, hala bada./ Toma de posesión del cargo de concejal de Vicente Garcia Momblona.**
- 2. Alderdi politikoen eraketaz berri ematea/Dar cuenta de la constitución de los grupos políticos.**
- 3. Udalbatzarreko batzarraldien maiztasuna onestu/ Aprobación de la periodicidad de las sesiones plenarias.**
- 4. Batzorde Informatzaileak sortu eta eratu/ Creación y composición de las Comisiones informativas.**
- 5. Korporazioa ordezkatuta egon behar duen organo kolegiatueterako ordezkariak izendatzea /Nombramiento de representantes de la Corporación en organismos.**
- 6. Alkateordeak izendatzeko Alkate jaunak hartutako ebazpenen ezagutzea/ Dación de cuenta del nombramiento de los Tenientes de Alcalde.**
- 7. Gobernu Batzordea sortu eta parte izango diren kideen izendapenari buruzko Alkate andreak hartutako ebazpenaren ezagutzea/Dación de cuenta de la constitución de la Junta de Gobierno Municipal y nombramiento de los miembros de la misma.**
- 8. Alkatearen soldata eta zinegotzientzako dietak batzarretara etortzeagatik/Asignación al Alcalde y dietas a los miembros de la Corporación por asistencia a sesiones.**

...//...



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA

VICENTE GARCIA MOMBLONA JAUNAK BERE ZINEGOTZI KARGUA HARTZEKO AITORPENA, HALA BADA

Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaile andreak adierazi du, pasa den maiatzaren 28ko tokiko hauteskundeen emaitzak ikusirik, ekainaren 17an Udal korporazioa eratu zela, hautatuak izandako 7 zinegotzietatik 7 bertaratu zirelarik.

Ikusita, ekainaren 19an egindako Jesus Maria Tejada Cantero zinegotziak bere zinegotzi karguari uko egin ziola.

Ikusita, ekainaren 19an Mireia Ruiz Delgado andreak, PSE-EE (PSOE)taldeko hurrengo hautagaiak zinegotzi kargua ez zuela hartu behar eta idatzi bat aurkeztu zuela.

Aurreko guztiaren ondoren, Idazkari andreak Tolosaldeko Hauteskunde-batzordearen aurrean aipaturiko bi errenuntziak aurkeztu zituen, PSE-EE (PSOE) hurrengo hautagaiaren kredentziala eskatu zuelarik. Kredentziala Larraulgo udalean aurkitzen da.

Ikusita, Vicente Garcia Momblona jaunak Larraulgo Udaleko zinegotzi kargua hartzeko betebeharrak guztiak burutu direla.

Alkate andreak gonbidatu du bateraezintasun kausarik balu ekintza honetan aldarrikatzera, Vicente Garcia Momblona jaunak ez dituela adierazi duelarik.


Apirilaren 5eko 707/1989 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzea beharrezkoa denez (Hauteskunde Erregimenaren Lege Organikoaren 108.8 artikularekin erlazionaturik), Vicente Garcia Momblona jaunak, zin egiten du bere karguari dagozkion obligazioak zintzo beteko dituela, Erregeari leialtasuna gordez eta Konstituzioa, Estatuko arau nagusi gisa bete eta betearaziko duela, kasu guztietan.

BIGARRENGO PUNTUA

ALDERDI POLITIKOEN ERAKETAZ BERRI EMATEA

13.05 orduak direnean Ander Iturri Torrea zinegotzia batzarraldi honetara bertaratzen da.

Udalbatzari jakinarazi zaio ondorengo talde politikoa eratu dela:
-2023ko ekainaren 23an GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK alderdi politikoa eratu zen.
Bozerramailea Ander iturri Torrea izango da eta ordezkaria Jose Antonio Rodriguez Rodriguez.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARREN PUNTUA **UDALBATZARREKO BATZARRALDIEN MAIZTASUNA ONESTU**

Udal behin-behineko Idazkariak, Alkate andreak agindurik, Entitate Lokaletako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 38 eta 78.artikuluen berri ematen du.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.-Udal Osoko batzarraldi arruntak hileko azkeneko asteartetan, eguerdiko 13.00etan egitea, eta jaia tokatuko balitz, laneguna den aurreko edo ondorengo asteartean edo hurrengo lanegunean.

LAUGARREN PUNTUA **BATZORDE INFORMATZAILEAK SORTU ETA ERATU**


Entitate Lokaletako Antolakuntza eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 38.artikuluaren arabera, Alkate jaunak proposaturik, Udalbatzak, aho batez, ondoren aipatzen diren Batzordeak eratzea erabakitzen du, ondorengo zinegotziak osatzen dituztelarik:

- Kulturako batzorde informatzailea:
Maria Pilar Cortajarena Sorarrain, Maite Arana Perez eta Jose Agustin Arrieta Eguiguren.
Batzordeburua: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain.
- Ogasuna eta Kontuetako Batzorde Berezia:
Vicente Garcia Momblona, Maite Arana Perez eta Jose Agustin Arrieta Eguiguren.
Batzordeburu: Vicente Garcia Momblona.

BOSTGARREN PUNTUA **KORPORAZIOA ORDEZKATUTA EGON BEHAR DUEN ORGANO KOLEGIATUTETARAKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA**

Une honetan, indarrean dagoen legedia betez, Udalbatzari ondorengo proposamena egiten zaio, jarraian aipatzen diren organo kolegiaturentzat ondorengo ordezkariak izendatzea:

Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartea:
Titularra: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain
Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Tolosako Hiltegi Mankomunatua:

Titularra: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain

Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa:

Titularra: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Ordezkoa: Ander Iturri Torrea

Tolosaldea Garatzen:

Titularra: Ander Iturri Torrea

Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Apatxa-erreaka industrigunea:

Titularra: Ander Iturri Torrea

Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Tolosaldeko Zabor Mankomunitatea:

Titularra: Ander Iturri Torrea

Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea:

Titularra: Ander Iturri Torrea

Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Kirol Elkarteak:

Titularra: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Ordezkoa: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain

Larraulgo Eskola

Titularra: Ander Iturri Torrea

Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Haurreskolak partzuergoa

Titularra: Ander Iturri Torrea

Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Andragora Tolosaldeko emakumeen etxea


Titularra: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain

Ordezkoa: Maite Arana Perez

EUDEL

Titularra: Maite Arana Perez

Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Joxe Agustin *Arrieta* Egiguren zinegotziak hitza hartzen du jakitera emateko puntu honetan bere bozka kontrakoa izango dela, oposizioko jendea ere organo kolegiatuetako ordezkarietan egotea positiboa dela uste duelako.

Gaia bozkaturik, udalbatza honek, gehiengoaz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Jarraian aipatzen diren organo kolegiaturentzat ondorengo ordezkariak izendatzea:

Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartea:

Titularra: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain

Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Tolosako Hiltegi Mankomunitatea:

Titularra: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain

Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa:

Titularra: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Ordezkoa: Ander Iturri Torrea

Tolosaldea Garatzen:

Titularra: Ander Iturri Torrea

Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Apatxa-erreka industrigunea:

Titularra: Ander Iturri Torrea

Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Tolosaldeko Zabor Mankomunitatea:

Titularra: Ander Iturri Torrea

Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea:

Titularra: Ander Iturri Torrea


Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Kirol Elkarteak:

Titularra: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Ordezkoa: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain

Larraulgo Eskola



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Titularra: Ander Iturri Torrea
Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Haurreskolak partzuergoa

Titularra: Ander Iturri Torrea
Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Andragora Tolosaldeko emakumeen etxea

Titularra: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain
Ordezkoa: Maite Arana Perez

EUDEL

Titularra: Maite Arana Perez
Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

SEIGARREN PUNTUA

ALKATEORDEA IZENDATZEKO ALKATE ANDREAK HARTUTAKO EBAZPENEN EZAGUTZEA

Alkate andreak hitza hartzen du azaltzeko **34/2023** ebazpenen bidez, Maria Pilar Cortajarena Sorarrain zinegotzia lehen alkate ordea eta Ander Iturri Torrea zinegotzia bigarren alkate ordea izendatu dituela .

Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

ZAZPIGARREN PUNTUA


GOI KARGUEN ASISTENTZI DIETAK ETA ASEGURUEN ONESPENA, HALA BADA

Ondoren goi karguen asistentzia dieta eta goi karguen bizi aseguruaren gaia tratatzen da. Ondorengo delarik proposamena.

-Asistentzia dietei buruz:

- Ohiko Udalbatzarretara etortzeagatik 150 euro
- Ez-ohiko Udalbatzetara etortzeagatik 50 euro
- Lehen alkate ordea, ordezkaritza-karguaren erantzukizunarekin lotutako funtzioak 100 euro hileko.
- Batzorde informatzaile bilerara etortzeagatik: 50 euro
- Batzorde informatzailetako lehendakariak, bileretara etortzeagatik: 100 euro.
- Organo kolegiatutako bileretara edo udala ordezkatzuz bileretara joateagatik 30 euro.

Kontzeptu guzti hauetatik, urtean, kide bakoitzak 3.000 euro baina gehiago ezingo ditu jaso.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Asegurari buruz, aipatu, zinegotzien bizi aseguruan, dagozkien aldaketak egingo direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udalbatzako partaideei udal organoen bileretara etortzeagatik ondorengo dietak jasotzea onesten da:

- Ohiko Udalbatzarretara etortzeagatik 150 euro
- Ez-ohiko Udalbatzetara etortzeagatik 50 euro
- Lehen alkate ordea, ordezkaritza-karguaren erantzukizunarekin lotutako funtzioak 100 euro hileko.
- Batzorde informatzaile bilerara etortzeagatik: 50 euro
- Batzorde informatzailetako lehendakariak, bileretara etortzeagatik: 100 euro.

-Organo kolegiatutako bileretara edo udala ordezkatzuz bileretara joateagatik 30 euro.

Kontzeptu guzti hauetatik, urtean, kide bakoitzak 3.000 euro baina gehiago ezingo ditu jaso.

BIGARREANA: Alkate eta zinegotziei bizi aseguru bat egitea onesten da.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 13:14 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.